

San Pedro de CESTAFE

CESTAFE

Se sitúa en una pequeña colina de las numerosas que se van formando al ir descendiendo hacia el Sur las laderas o estribaciones del monte Gorbea. La altitud media que alcanza Cestafe es de 641 metros sobre el nivel del mar.

Su antigüedad sobrepasa el milenio, como queda reflejado en la donación que hace en el año 871 Don Arroncio, el Obispo Vivere y otros, al monasterio de San Vicente de Acosta, de la mitad de una foguera (noguera), situada en Cestafe.

Los diferentes vocablos y años en los que aparece el mismo, los recogemos de López de Guereñu y son: Zeztave en el año 871; Cestave en 1087; y Cestafe en 1257.

A la demarcación de esta localidad pertenecen los terrenos del despoblado de Gorostiza, apareciendo nombrado con ese mismo vocablo en el Cartulario en el año 1067.

ZESTAFE

Gorbeiaren maldak Hegoaldera doazen neurrian eratzen diren muino koskor baten gainean kokatua dago. Zestafe-ren batezbesteko altuera itsasmailatik gora 641 m.koa da.

Zahartasunean mila urte baino gehiago ditu, hola ageri bait da 871eko urtean Don Arronciok, Vinere Gotzaiak eta beste batzuk San Bizente Akostako monastegiari egiten dioten dohaintza batean, Zestafen aurkitzen den intxaurrondo baten erdia emanez.

Forma eta urte desberdinetan agertzen da izen hori; hona López de Guereñu-renetik jasota: Zestave 871eko urtean; Cestave 1087ko urtean; eta Cestafe 1257ko urtean.

Herri honetako mugapekoak dira Gorostizako despopulazioko terrenoak, eta izen honekin berarekin izendaturik ageri da kartulazioan 1067ko urtean.

Ermita de San Pedro de Gorostiza.
Vista general.
Ventanal al Sur.

Gorostizako San Pedro ermita.
Bista orokorra.
Lehiatea Hegoaldera.

El índice demográfico ha decrecido notablemente en los últimos 130 años. Así, en el año 1850 lo habitaban 126 personas, siendo 46 habitantes los que hoy día lo moran.

El caserío de esta localidad está repartido en dos barrios distantes entre sí unos 1.800 metros, en línea recta; situándose uno de ellos, el de San Pedro, en el pintoresco valle de conexión entre Cigoitia y Villarreal de Alava, en los primeros llanos que forman las laderas del Monte Gorbea.

El barrio de San Pedro de Cestafe ocupa los terrenos en los que se asentó el despoblado de Gorostiza del cual resta sólo su antiguo templo parroquial, hoy ermita de San Pedro.

Esta ermita ha sido recientemente restaurada, conservando varios elementos muy característicos del estilo románico: la pila bautismal que nos indica su antigua función parroquial, varios canes, y dos bellas ventanas, una de ellas ricamente ornamentada, se encuentran entre el legado que nos ha sido encomendado.

Biztanle-kopurua nabariki gutxitu da azken 130 urteotan. 1850eko urtean 126 pertsona bizi ziren bertan, gaur egun 46 bizi dira.

Herriska honetako etxe-taldea bi auzotan dago banatua, bi auzoren artean 1.800 bat m.ko aldea dago zuzenean. Bietako bat, San Pedrokoa, Zigoitia eta Legutioren arteko ibar politean aurkitzen da, Gorbeia mendiaren maldak eratzen dituen lehen ordeketan.

Zestafeko San Pedro auzoa dago behiala Gorostizako deserritua (despopulazioa) aurkitzen zen lurretan; ordukotik parroki eliza zaharra besterik ez da gelditzen, gaur egun San Pedro ermita dena.

Ermita hau berritua izan da orain dela gutxi; estilo erromanikoaren oso berarizkoak diren zenbait elementu kontserbatuz. Bataioko pontea, antiguala zuen parroki funtzioa gogorarazten duena; hainbat harburu eta bi leiho eder, bat oso ornamentazio aberats batekin, aurkitzen dira utzi zaigun legatuan.

Caserío La Tejera o Astola.
Remozada construcción con su vertiente al Norte de mayor superficie.

Teileria edo Astola baserria.
Eraikin berritua, azalerarik handieneko bere isurkiak Iparraldera ematen duela.

Cuatro son los caseríos, además de un grupo de seis o siete viviendas unifamiliares de reciente construcción, los que conforman este barrio de San Pedro de Cestafe.

Tres de ellas se hallan muy próximas entre sí, al lado del camino vecinal nº 58, que une Gopegui con Ollerías de Elosu, y el cuarto alejado de los anteriores y, así mismo, del citado camino vecinal. A éste último se le conoce con el nombre de "La Tejera". El actual está construido sobre otro anterior del cual queda algún vestigio en el borde.

Lau dira Zestafeko San Pedro auzoa osatzen duten baserriak, berriki jaso diren familiabakarreko sei edo zazpi etxeko multzo bat aparte utziz.

Horietako hiru elkarrengandik oso hurbil aurkitzen dira, auzo-bide zk.58aren ondoan; bide honek lotzen du Gopegi Ollerias de Elosurekin. Laugarren baserria besteetatik urruti dago eta auzo-bidetik ere bai: "La Tejera" izenekoa da. Oraingo baserria lehengo zaharraren lekuan dago jasoa; haren arrastoren bat ere gelditzen da oraindik ertzean.

Caserio en el barrio de San Pedro Gorostiza.
Vista general.

Baserria Gorostizako San Pedro auzoan.
Bista orokorra.

De los tres que se hallan juntos, el que se sitúa desaparejado a un lado de la carretera ha sido remozado hace unos años, ofreciendo un aseado aspecto. La gran extensión que presenta la vertiente Norte de su cubierta, solución muy repetida en esta zona cuando el caballete es paralelo a la fachada principal, y de esa forma, ofrecer menor superficie de exposición a las adversas condiciones climatológicas. Observando su fachada apreciamos inmediatamente la zona destinada a vivienda, y la correspondiente a cuadras y pajar. En el alzado lateral correspondiente al sector habitacional humano se le anexiona una sencilla construcción a una agua, que atesora al horno de pan, denunciado éste por la proyección de su bóveda al exterior.

Elkarren ondoan dauden hiruetatik, kaminoertzean bakarrik dagoena berritua izan da orain urte batzuk, eta oso txukuna ematen du. Bere teilatuaren lparraldeko isurkiak hedadura handia du. Eskualde honetan maiz ikusten den gauza da hauxe, galdurra fatxada nagusiarekin paralelo dagoenean; honela hedadura txikiagoa ematen zaie klimazko kondizio txarrei. Fatxadari begiratuz berehala igertzen da zein den bizitzatarako erabiltzen den partea eta zein ikuilu eta lastategitarako. Saihetseko altxaera da bizitzarena eta isurki bakarreko eraikin xume bat atxikitzen zaio ogi-labea barnean duena. Kanpoaldera projektaturik dagoen gangak nabarmen erazten du hori.

Casas en San Pedro Gorostiza con el remozamiento experimentado por una de ellas.

Etxeak Gorostizako San Pedron, horietako bat zaharberritua izan delarik.

De los dos caseríos al otro lado de la carretera, el que se halla frente al anteriormente descrito, dispone sus edificios en forma de "U", con el lado abierto mirando al Levante, y con el espacio libre, actuando como zona de trabajo.

El tercer caserío, remozado recientemente, destina toda su planta baja a cuadras, dejando el piso para albergar a la cocina y dormitorios. Al piso se accede desde el exterior a través de escalera de mampostería. La popular cabaña de que disponía este caserío ha sido sustituida por pabellón moderno de estructura de hierro con cubierta de uralita. Delante de la casa se encuentra pequeño espacio de recreo que, hasta no hace mucho tiempo, era ocupado por el típico huerto.

Kaminoaren bestaldetik dauden beste bi baserrietatik bata azkena edestu horren parean aurkitzen da. "U" itxuran dauzka eraikinak antolaturik, parte irekia Ekialdera begira duela, tartean zabalune bat lan egiteko toki bezala.

Hirugarren baserria duela gutxi berritua dago. Beheko oin guztia ikuilutarako dauka; eta pisuan jarri ditu sukaldea eta logelak. Pisurako sarbidea kanpotik dago, harlangaitzezko eskailera batean zehar. Baserri honek zuen ohizko egilehorraren lekuan pabiloi moderno bat jaso da burdin-egiturazkoa uralitazko estalkiarekin. Etxeaurrean jolastoki txiki bat dago, oraindik asko ez dela baratza zena.